

XXI EDIZIOA



**“Café Bar Bilbao”
Teatro Laburreko Saria**

DOLUA

BIZPAHIRU izeneko antzerki sortatik..

Pantzo Hirigarai

2023

DOLUA

*(Lau gizon sartzen dira . Kostuma beltzez eta ttattarraz bezti.
Denek buru aire tristea . Peio-k botoila bat arno eskuan eta beste
batek basoak . Besteak mahaian jarri eta Peio-k basoak beteko
ditu)*

Peio . Armando . Mikel . Pantxo

(Ixilune luze baten ondotik , denak pentsaketetan)

Peio : Gaizo Jakes !

Armando : Hura ere joan zaukuk !

Pantxo : Gure lagun taldea ari duk ttikitzen !

Mikel : *(Agenda eta arkatza sakelatik ateratzen du eta marra bat egiten)* Are ! Beste izen bat marratzeko ene agendan . Ez diat gehiago Jakesen telefono zenbakiaren beharrik !

Peio : *(Mikelen espalda gaintetik so eginez)* ...Errak ! Ene izena ere jadanik marratua duk ! Ni bizi nauk !

Mikel : *(Jenatua)* Barkatu ! Hiria doi bat antzipatu diat !

Peio : *(Gaitzitu)* Nik ez diat hiria marratzeko beharrik , ez diat sekulan eman !

Armando : Zer zeremonia ederra eskaini diogun Jakes zenari !
Denak kantuz alegeraki !

Pantxo : Baietz ! Hik segurik arrunt makur kantatu duk ! Ez hiza ohartu ?

Armando : Badakiat ! Jakes-i omenaldi gisa ! Bere bizi guzia makur ereman baitik !

Peio : “Kantuz alegeraki” ! Heriotza alegera delako ilusioa gure burueri sinetsarazteko ? Gure baitan ditugun pena eta beldurrak kukutzeko?

Pantxo : Eta kantua bururatu orduko, gure pena ezin kontsolatura itzultzeko ! Balio dik, to, kantuz artzea !

Mikel : Zoin ezezkorrak zirezten! Ez duzue uste beste bizi bat badela, hiltzearen ondotik ?

Armando : Nik bai ! Errotik ! Ez duk posible betirako desagert gaiten! Bestenaz , biziak ez dik sentsurik !

Pantxo : Hau pika buztana! Orai ohartzen haiza? Bixtan duk ez duela sentsurik! Genetikaren ustegabeko ondorio suntsikor bat duk gutarik bakoitza!

Peio: Alabainan! Pasaia labur bat eta sekulako desagertzen gaituk! Oraino bizi direnen memorioan gelditzen girela, bakarrik!

Mikel: Eta ez duzue batere jainkoari sinesten?

Pantxo : Ah ! Hik uste duk badela jainkotasun zerbait gure gainekaldian , gure zain ! Inoxenta, hi ! Zer mentskeria!

Mikel : Eta ebanjeliotan kondatua dena, zer da? Dena gezur!

Peio: Talendu haundiko idazleek asmatuak!

Armando: Eta Jesu Kristorik ez duk izan, zuen ustez ! Ez du mirakuilurik egin!

Pantxo : Hura magoa! Magizianoa! Dena truka!

Armando: Gure izaitea ez duk bakarrik larru, haragi eta hezurrez egina, halere! Arima ere badiagu! Arima ez duk hiltzen!

Peio : Beraz , ongi entzuten bazaituztet , Jakes bizi da ! Ongi ! Deituko diat ! (*Atera doa eta Jakes deitzen*) Jakes !?! ...Jakes ? Sar hadi ! Omen bizi haizela ! (*Gizon bat sartzen da , ator xuri eta galtza beltzez bezti*)

Peio . Armando . Mikel . Pantxo . Jakes

Jakes : Ba , hemen nauk ! Ah ! Hor zineztena ! Ez nakian zer bilakatuak zinezten! (*Badoa , mahaian hutsik gelditzen den kadera bakarrera*) Ez dea basorik enetako?

Peio: (*Ez du ikusten eta deika segitzen du*) Jakes !?! ...

Jakes: Zer ari haiz! Hemen nauk!

Peio : (*Besteeri , trufan*) To ! Ez da hor !

Armando: Badakiagu ez dela hor! Mikel-ek erran nahi dik bizi dela, guk ez badugu ikusten ere. Jakes menturaz , gure ondoan diagu , guri beha!

Jakes : Nortaz ari zirezte ? (*Besteek ez dute ikusten*) Eta zer ari zirezte kostuma beltzez ! Norbaiten ehorzketetan zinezten ala? Norenak? ...(*Bere atorraren koleta sendituz*) Eta zer dut intsentsu usai hau, nik!

Pantxo : (*Trufan*) Zer tetelea egiten dukan Armando! Jakes gure ondoan dela! Baietz! Batzuk pentsatzen baitute hilak animale itxurarekin berpizten direla: Beha ezazue armiarma hori! Ez

ezazuela lehert, eh ! Behar bada Jakes baita ! (*Irriz*)

Jakes: Nor duzue Jakes hori! (*Besteek ez dute entzuten*)

Mikel : (*Gaitzitua*) Hi segurrik Pantxo, animalez berpizten bahaiz , ez haiz armiarmaz eginen! Bainan astoz !

Pantxo: Ba ta hi Mizel, huntzaz !

Jakes : Eta ni zezenez ! (*Irriz karkailaka*) (*Ez du nehork ihardokitzen, ez baitute entzun*)...Ez zen irringarri ala?

Peio : (*Trufan*) Eta katiximan erakasten zaukutena: Ontsa gobernatuz, parabisuaren giltzak ukanen gintuela, bestenez ifernuko garrak!

Jakes: Errak Peio ! Segur nauk Satan jadanik ari dela bere eltze haundiko ura irakinarazte , horetako ! Ez dea hala ? (*Ez du nehork ihardokitzen , ez baitute entzun*) Boon !

Mikel: Batzuek diote ere norberak bizi bat baino gehiago ukaiten duela! Beste norbait izan girela iraganean. Nik sinesten diat horri!

Pantxo : Ah bon ! Ta hi nor izan haiz, iraganean ? Norbait garantzitsu, hai segur!

Mikel : Uste diat baietz! Berdin Napoleon!

Besteak : (*Irriz*) Baietz! ...Guttienez!...Nunbaitik ere! ...

Jakes : Ez hintzan Attila ote? Badakizue: pasatzen den lekutan belarra ez baita gehiago pusatzen! Aitor ezazue hori irringarri zela! ...(*Besteek ez dute entzun*) Ez? ...

Armando : Nik halere, aitortzen dauzuet ez nukela berpiztu nahi!

Ikusi duzue zer den gure bizia?

Peio: Zonbat nahigabe! Zonbat desilusio! Hain beste amodio ixtorio triste! Emazte batetaz maite mindu eta azkenean harremana berexte, dibortzio eta herrarekin bururatzen...

Pantxo: (*Harro*) Hiretako mintza hadi! Ene kasuan, nik ditiat beti neska lagunak utzi, heiek egin aurretik! Heien falta zian!

Jakes: He be! Zer solasgai alaiak dituzuen egun! Zer dituzue buru aire triste horiek!

Mikel : Bizia? Alegeratsun zonbait, ezin ahantzizko xangrinek ezeztatzen dituztenak!

Pantxo: Eta egunerokoa? Zergak, zorrak, langabezia... edo piesago lana ...

Peio: Automobilaren kontrola bi urteetarik egin behar!

Besteek : Boh boh boh ! (*Egonen dira pentsaketetan*)

Jakes: Ene autoak bederen ez dik gehiago kontrolarik behar! (*Irriz*) Arbola azkarrago zian! Badakizue ez dutala ene ixtripitik landa gertatu denaz deus orhoitzapenik? (*Ixiltasuna*) ...Ho ! Ez zaituztete nere ixtorioek interesatzen edo?... Gertatu zautana berdin zautzue? (*Besteek ez dute entzun*)

Mikel: Jakes-i hamar aldiz errana nakian lasterregi ibiltzen zela bere automobilekin!

Jakes: Ados! Hemendik goiti konduan hartuko diat hire oharra! (*Mikelek ez du entzun*)

Armando: Jakes-ek ez dik gehiago kezkarik , to!

Jakes: Zergatik ez nuzke zuen kezak?...*(Besteak ixilik)* Zuen zailtasun berak bizi ditut eh, nik ere! Denendeko zaila da! Bat egiten duzue nerekin!... Bainan zergatik ez duzue erantzunik emaiten? Muturra egiten dautazue ala?

Besteek: Gaizo Jakes !

Jakes : *(Gaitzitua)* Bon! Aspertzen nauzue! Nik ez dut gehiago deus egitekorik zuekin! *(Ateratzen hasten da bainan gelditzen, abeslaria sartzen dela ikustearekin.Ha u berehala hasiko da kantuz)*

Peio . Armando . Mikel . Pantxo . Jakes . Abeslaria

Abeslaria : *(Leloa)*

Ainitzentzat beldurgarri herioa,

Jakin nahian zer den ondorioa:

Berpizkundera edo galbarioa?

Ezer eza da ala bozkarioa?

Hauxe da hiltzearen misterioa!

1

Batzuk bizi iraunkorrari sinesten

Eta hil kutxan gaituztelarik hesten

Ixtorio berri bat dugula hasten,

Beste baten azalarekin berpizten

2

Batzuek ere ustea dute oso

Galdu ditugun lagun edo guraso,

Ahaide edo aspaldiko arbas ,

Gure sahetsean daudela, guri so!

3

Besteendako hori da dena gezur,

Heriotza ezin dela bizi bihur

Betirako izaiten girela hezur

Poetak zion bezala, hauts eta lur

4

Eta begiak hesten ditugunean,

Gaudela gu deusez-aren ilunean

Bizi bakarrik besteen omenean,

Soilik lur huntakoen orhoimenean .

Armando : Biba hi ! (*Basoa altxatuz*) Hiri , Jakes gaizoa!

Besteek : (*Berdin basoa alxatuz*) Jakes-i!

Jakes : ...Milesker! ...Bainan! Zeren ohoretan ospatzen nauzue? Ez da ene urte betetzea! ...

Pantxo : Hil harrira joaiten bagine! Trago bat hartuko diagu bere

hil harriaren inguruan. (*Basoak eta botoila hartu eta ateratzen dira*)

Jakes

Jakes : Norat zoaztela? (*Bakarrik egoiten da , pentsaketan*)
Heriotza!... Zer bilakatzen gira, hil eta!... Zer dakiat nik? Funtsean nola jakiten ahal nuke? (*Ateratzen da bere atorraren koleta berriz sendituz*) Bainan nundik heldu zaut intsentsu usain hau , eni!

Oihala